

**I. ATALA****BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO FORU ADMINISTRAZIOA****Bizkaiko Foru Aldundia****Ogasun eta Finantza Saila**

**Ogasun eta Finantzen foru diputatuaren 641/2023 FORU AGINDUA, azaroaren 23koa. Haren bidez, balio erantsiaren gaineko zergaren urteko laburpen-aitorpenaren 390 eredia onesten da, bai eta eredu horren aurkezpen elektronikoa ere.**

Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko azaroaren 9ko 7/1994 Foru Arauko 164. artikuluko lehenengo idatz-zatiko 6. zenbakian xedatutakoaren arabera, zerga hori dela-eta aldizkako autolikidazioak (hilekoak edo hiruhilekoak) aurkeztu behar dituzten subjektu pasiboek urteko laburpen-aitorpena aurkeztu behar dute, araubide berezi batzuetarako ezarritakoa eragotzi gabe.

Gaur egun indarrean dagoen 390 eredia Ogasun eta Finantzen foru diputatuaren abenduaren 4ko 2327/2015 Foru Aginduaren bidez arautu zen. Foru agindu horren birtatez, balio erantsiaren gaineko zergaren urteko laburpen-aitorpenaren 390 eredia eta haren aurkezpen telematikoa onetsi ziren.

Bizkaiko Foru Aldundiak, bere egoitza elektronikoa abian jarri ondoren, herritarrei sailtako bulego birtualetatik Bizkaiko Foru Aldundiaren egoitza elektronikora ematen zaizkien zerbitzu telematikoak pixkanaka migratzeko prozesuari ekin zion.

COVID-19ak ekarritako osasun-larrialdiko egoerak eragin handia izan zuen Bizkaiko zerga-administrazio elektronikoa izateko prozesuan, eta horrek, arlo horretan ere, atzerapen handiak eragin zituen migrazio osoa gauzatzeko beharrezkoak ziren egokitzapen-prozesuak amaitzeko garaian; hasiera batean, 2021eko abuztuaren 1era atzeratu zen migrazioa, eta, horren ondoren, 2023ko abuztuaren 1era.

Testuinguru horretan, azaroaren 24ko 100/2020 Foru Dekretua onartu zen. Horren bidez, Bizkaiko Lurralde Historikoko zergak kudeatzeko erregelamendua aldatzen da, administrazio elektronikoaren arloan, zerga-kudeaketari lotutako indarreko arau-esparrua zerga-administrazio elektroniko bat ezartzeak dakartzan errealitate berrietara egokitzeko.

Hala, besteak beste, aipatutako azaroaren 24ko 100/2020 Foru Dekretuaren xedapen gehigarri bakarrak ezarri zuen, aldez aurretik ezarrita ez dagoenean, nahitaez bete behar direla bide telematikoz 2021eko urtarrilaren 1etik aurrera hasten diren edo data horretatik aurrera sortzen diren aitorpenaren edo likidazioaren zergaldiei dagozkien zerga-betebehar guztiak, baita betebehar formalak ere. Kasu horietan, Ogasun eta Finantza Sailarekin harremanak bide telematikoz izateko betebeharra jasotzen da.

Era berean, BATUZ sistemaren barruan, Bizkaiko Foru Aldundiaren abenduaren 14ko 158/2021 Foru Dekretuaren 3. artikulua (2022 eta 2023rako BATUZ sistemara borondatez atxikitze baldintzak eta aplikatu daitezkeen konpentsazioa zehazten dituenak, eta hainbat zerga-erregelamendutan zenbait aldaketa sartzen dituenak) ezartzen du foru-agindu bidez zehaztuko direla sistema horri lotutako betebeharrak borondatez betetzera atxiki diren zergadunek autolikidazio edo aitorpenen zirriborroak eskuragarri jartzeko eskatu ahal izango dituzten zerga-ereduak.

Testuinguru horretan, Balio Erantsiaren gaineko Zergaren 390 ereduaren azken autolikidazioaren eta aitorpenaren zirriborroak eskatzeko aukerari heltzen zaio orain.

Aipatutako autolikidazioaren eta aitorpenaren zirriborroak zergadunei beren zerga-betebeharrak betetzeko laguntzeko bitarteko bat dira, eta foru agindu honetan arautzen den eredia aurkezteko epea amaitu aurreko lehen egunetik bigarren egun baliidunera arte eskatu ahal izango dira.

Era berean, adierazi behar da zirriborroa eskuragarri jartzeko beharrezkoa dela zergadunek aldez aurretik eskatzea Bizkaiko Foru Aldundiaren egoitza elektronikoaren bi-



dez, eta horren edukia bat etorriko da Bizkaiko Foru Aldundiaren egoitza elektronikoan eraman diren eragiketa ekonomikoen erregistro-liburuetan ageri den informazioarekin (liburuok Sozietateen gaineko Zergaren Foru Arauaren 122 ter artikuluan eta Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren Foru Arauaren 114. artikuluan aipatzen dira).

Zirriborroa egin ondoren, zergadunak zergaren autolikidazio edo aitorten zuzenerako beharrezkoak diren datuak eta dokumentazioa egiaztatu, aldatu eta/edo emango ditu, dagokionaren arabera, eta kontuan hartu beharko da zirriborroa jasotzeak ez duela inola ere zergaduna salbuetsiko Bizkaiko Foru Aldundiaren egoitza elektronikoaren bidez Balio Erantsiaren gaineko Zergaren autolikidazioa edo aitortpena aurkezteko betebeharretik, zerga hori arautzen duen araudiaren arabera horretara behartuta dagoenean.

Azkenik, adierazi behar da zergadunak autolikidazioaren edo aitortpenaren zirriborroa erabili ahal izango duela hura aurkezteko, Bizkaiko Foru Aldundiaren egoitza elektronikoan ezarritako prozedurari jarraituz.

Hori dela bide, Bizkaiko Kondaira Lurraldeko Foru Erakundearen Hautapen, Antolaketan, Erregimen eta Funtzionamendu

ari buruzko otsailaren 13ko 3/1987 Foru Arauaren 39.i) artikulua emandako ahalmena erabiliz, hau

XEDATZEN DUT:

I. KAPITULUA

**BALIO ERANTSIAREN GAINEKO ZERGAREN AZKEN AUTOLIKIDAZIOA EGITEKO  
390 EREDUA. AITORTPENA (ERAKUNDE TALDEAK, HILEKO ITZULKETEN  
ERREGISTROAN SARTUTAKO SUBJEKTU PASIBOAK)**

**1. artikulua. — 390 eredia onestea**

Balio Erantsiaren gaineko Zergaren azken autolikidazioa egiteko 390 eredia onesten da (entitate-taldeak, hileko itzulketen erregistroko subjektu pasiboak). Foru agindu honen I. eranskinean jasotzen da.

**2. artikulua. — 390 eredia aurkeztu behar dutenak**

Azken autolikidazioa egiteko, aitortpena araubide orokorrean bakarrik aurkeztu behar duten Balio Erantsiaren gaineko Zergaren subjektu pasiboak aurkeztu behar dute 390 eredia. Subjektu pasiboak autolikidazio bakarria aurkeztuko du.

Urteko laburpen-aitortpena egiteko, berriz, erakunde-taldeen araubide berezia baliatzen duten Balio Erantsiaren gaineko Zergaren subjektu pasiboak eta Hileko Itzulketen Erregistroan inskribatuta daudenek aurkeztu behar dute 390 eredia.

**3. artikulua. — 390 eredia telematikoki aurkezteko baldintza orokorrak**

*Bat.* 390 erediari dagozkion autolikidazioak edo aitortpenak telematikoki aurkeztea nahitaezkoa izango da, eta Bizkaiko Foru Aldundiaren egoitza elektronikoaren bidez egingo da.

*Bi.* Autolikidazio hauek telematikoki aurkezteko, baldintza hauek bete behar dira:

1. Sarbidea Bizkaiko Foru Aldundiaren egoitza elektronikoaren bidez egingo da, eta segurtasun berme osoa izango du informaziorako sarbidean eta haren jarduketan izapidetzean.
2. Aitortzaileak edo, hala badagokio, pertsona edo erakunde ordezkariak, egoitza elektronikoan horretarako ezarritako sistemak erabiliz identifikatu beharko du bere burua, uztailaren 21eko 112/2009 Foru Dekretuak onartutako Bizkaiko Lurralde Historikoko zergak kudeatzeko Erregelamenduan ezarritakoaren arabera. Halaber, honako izapide hau ere hautatu beharko du: «Balio erantsiaren gaineko zergaren aitortpena aurkeztea (BEZaren banakako aitortpena). 390 eredia, balio erantsiaren gaineko zergaren azken autolikidazioa / aitortpena». Horrez gain, Bizkaiko Foru Aldundiaren egoitza elektronikoan adierazitako izapidetze-jarrai-bideak bete beharko ditu.



- 390 ereduari dagokion autolikidazioa edo aitortpena telematikoki aurkezteko, aitortzaileak edo, hala badagokio, pertsona edo erakunde ordezkariek transmititu beharreko autolikidazioa edo aitortpena duen fitxategia sortu beharko du, Bizkaiko Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Sailak garatutako programak soilik erabiliz. Programek aldi bakoitzean autolikidazio edo aitorten bakarra duen fitxategia sortuko dute.

Halaber, aurkezpen telematikoa Bizkaiko Foru Aldundiaren egoitza elektronikoan eskuragarri dagoen web formularioaren bidez egin ahal izango da.

Azken kasu horretan, zergadunak zergaren autolikidazioa edo aitortpena aurkeztu ahal izango du, Ogasun eta Fidantza Sailak eskuragarri jarritako zirriborroan jasotako datuetatik abiatuta, foru agindu honen II. kapituluaren ezarritako baldintzekin bat.

- Bidalitako autolikidazioari edo aitortpenari dagokion aitortzaileak egoitza elektronikora sartu den erabiltzailea izan behar du. Autolikidazioa aurkezle baimenduak aurkezten badu, ordezkatzen dituenetako bat izan behar du, foru-agindu honen 6. artikuluan ezarritako baldintzen arabera.

*Hiru.* Akats formalak dituzten autolikidazioak edo aitortpenak aurkeztea.

Telematikoki autolikidazioak edo aitortpenak betetzean akats formalik egonez gero, inguruabar horren berri emango zaio aitortzaileari, sistema bera erabiliz: akats-mezuak bidaliko zaizkio, akatsok konpon ditzan.

#### **4. artikulua. — Aurkezteko epea**

*Bat.* 390 eredua urtarrilean aurkeztuko da.

*Bi.* Aurreko zenbakian ezarritakoa gorabehera, subjektu pasibo batek (arabide orokorrekoa edo erakunde-taldearen arabide berezikoa) bi autolikidazio aurkeztu beharko ditu bera konkurtsoan dagoela deklaratzeko den epean: bata, epearen hasieratik konkurtsoa deklaratu aurreko egunera arteko aldiari dagokiona; bestea, konkurtsoa deklaratu denetik likidazio-epea amaitu arteko aldiari dagokiona.

#### **5. artikulua. — Ordainbideak**

*Bat.* 390 ereduaren banku-helbideratzearen aldeko aukera egiten denean —itzultzeko autolikidazioen kasuan nahitaezkoa izango da— atzeraezina izango da eta honako baldintzok bete beharko ditu:

- Bizkaiko Foru Ogasunak jakin behar du nor den IBAN kodearen titularra.
- IBAN kodearen titularra aurkeztutako autolikidazioaren aitortzailea izan behar da.

#### **6. artikulua. — Lankidetzaren hitzarmenak edo -akordioak**

*Bat.* Bizkaiko Lurralde Historikoko zergen kudeaketari buruzko Araudia onetsi zuen uztailaren 21eko 112/2009 Foru Dekretuko 48. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik, Ogasun eta Finantza Sailak lankidetzaren hitzarmen edo -akordioaren bidez baimena eman go die erakunde edo elkarte aintzatetsi batzuei euren bazkide edo kide diren profesionalen autolikidaziorako edo aitortpenerako 390 eredua bide telematikoen bitartez aurkezteko, beste batzuen izenean.

*Bi.* Aurreko zenbakian aipatutako profesionalen kasuan-kasuan behar den ordezkaritza izan behar dute 390 ereduaren autolikidazioak edo aitortpenak telematikoki aurkezteko. Profesional horiek Ogasun eta Finantza Sailak eskatzen dien guztietan frogatu behar dute euren ordezkaritza, lankidetzaren hitzarmen edo -akordioaren ezarri bezala.



## II. KAPITULUA

**390 EREDUKO AUTOLIKIDAZIOAREN EDO AITORPENAREN ZIRRIBORROAK****7. artikulua. – Autolikidazioaren edo aitorpenaren zirriborroak**

1. Bizkaiko Foru Aldundiaren abenduaren 14ko 158/2021 Foru Dekretuaren 3. artikuluan aurreikusitakoa garatzeko (horren bidez, 2022rako eta 2023rako BATUZ sistema-ra borondatez atxikitze baldintzak zehazten dira, bai eta aplikatu beharreko konpentsazioa ere, eta zenbait aldateta sartzen dira hainbat tributu-erregelamendutan), Balio Erantsiaren gaineko Zergaren 390 ereduari dagokion autolikidazioa edo aitorpena aurkeztu aurretik, Ogasun eta Finantza Sailak, Bizkaiko Foru Aldundiaren egoitza elektronikoaren bidez, eta zergadunek eskatu ondoren, eskuragarri jarriko ditu Balio Erantsiaren gaineko Zergaren aitorpenaren zirriborroak.

2. Zirriborro horiek egiteko, Ogasun eta Finantza Sailak eragiketa ekonomikoen erregistro-liburuetan ageri den informazioa izango du abiapuntu. Liburuok Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 5eko 11/2013 Foru Arauaren 122 ter artikuluan eta Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 5eko 13/2013 Foru Arauaren 114. artikuluan aipatzen dira, eta Bizkaiko Foru Aldundiaren egoitza elektronikoan eraman diren eragiketak jasotzen dituzte.

3. Eskabidea Bizkaiko Foru Aldundiaren egoitza elektronikoaren bidez egin behar da, foru agindu honen 4. artikuluan aurreikusitako eredu aurkezteko epea amaitu aurreko lehen egunetik bigarren egun baliodunera arte.

Horretarako, aitortzailea edo, hala badagokio, pertsona edo erakunde ordezkaria identifikatzeko, egoitza elektronikoan horretarako ezarritako sistemak erabili behar dira, uztailearen 21eko 112/2009 Foru Dekretuaren bidez Bizkaiko Lurralde Historikoko zergak kudeatzeko onartutako Erregelamenduan ezarritakoaren arabera, eta dagokion aukera erabili behar da zirriborroa eskatzeko, bai eta Bizkaiko Foru Aldundiaren egoitza elektronikoan adierazitako izapidetze-jarraibideak segitu ere.

4. Ogasun eta Finantza Sailak zirriborroak eskura jarri ondoren, zergadunak zerga behar bezala autolikidatzeko beharrezkoak diren datuak eta agiriak egiaztatu, aldatu eta/edo emango ditu, dagokionaren arabera.

5. Ogasun eta Finantza Sailak autolikidazioaren edo aitorpenaren zirriborro bat aurkeztu arren, zergadunak Balio Erantsiaren gaineko Zergaren autolikidazioa edo aitorpena aurkeztu behar du Bizkaiko Foru Aldundiaren egoitza elektronikoaren bitartez, baldin eta zerga hori arautzen duen araudian horretarako betebeharra duela adierazten bada.

## LEHENENGO XEDAPENAK

**Lehenengo xedapen iragankorra. – Dirua itzultzea dakarten autolikidazioei erantsi beharreko dokumentazioa**

BATUZ sistema behin betiko ezartzeko prozesua amaitu arte, dirua itzultzea dakarten 390 ereduko autolikidazioetan, subjektu pasiboak behartuta ez badaude eragiketa ekonomikoen erregistro-liburua egitera, dagokion ekitaldian egindako eta jasotako BEZaren fakturen erregistro-liburuak aurkeztu behar dira, .xls edo .xlsx formatuan. Halaber, dirua itzultzea dakarten autolikidazioetan konpentsatu beharreko aurreko ekitaldietako kuotak sartzen direnean ere aurkeztuko dira balio erantsiaren gaineko zerga dela-eta ekitaldian eman eta jasotako fakturen erregistro-liburuak, aipatu diren formatuetan.

Dena den, 140 eredu aurkeztu behar duten zergadunek eredu horren bidez bete ahal izango dute betebehar hau.

**Bigarren Xedapen Iragankorra. – Zirriborroak eskatzeko epea**

*Bat.* BATUZ sistema behin betiko ezartzeko prozesua amaitu arte, urte natural bakoitzeko urtarilaren 1ean sistema horri atxikita dauden zergadunek baino ezingo dituzte eskatu foru agindu honen 7. artikuluan xedatutako zirriborroak.



*Bi.* Foru agindu honen 7. artikuluan xedatutakoa gorabehera, balio erantsiaren gaineko zergaren subjektu pasiboek, baldin eta erakunde taldearen araubide bereziari atxikita badaude, urteko laburpena aurkezteko 390 ereduaren zirriborroa eskatu ahalko dute 2024ko ekitalditik aurrera, 2025eko urtarrilean aurkeztu beharrekoa.

*Hiru.* Foru Agindu honen 7. artikulua 3. idatz-zatian xedatutakoa gorabehera, 2023ko, 2024ko eta 2025eko ekitaldietako 390 ereduaren zirriborroak foru agindu honen 4.1 artikuluan xedatutako aurkezteko epea amaitu aurreko lehen egun baliodunetik lau-garrenera bitartean eskatu ahalko dira.

## XEDAPEN INDARGABETZAILEA

### **Xedapen Indargabetzaile Bakarra.— *Arauk indargabetzea***

Foru agindu hau indarrean jartzen denean, derogaturik geratuko da Ogasun eta Finantzen foru diputatuaren 2327/2015 Foru Agindua, abenduaren 4koa, zeinaren bidez onetsi baitziren balio erantsiaren gaineko zergaren urteko laburpen-aitorpenaren 390 eredia eta haren aurkezpen telematikoa.

## AMAIERAKO XEDAPENA

### **Amaierako Xedapen Bakarra.— *Indarrean jartzea***

Foru-agindu hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean jarriko da indarrean, eta 2023ko ekitaldiari dagokion urteko aitorpen-laburpena aurkezteko aplikatuko da lehenengoz.

Bilbon, 2023ko azaroaren 23an.

Ogasun eta Finantzako foru diputatua,  
ITXASO BERROJALBIZ ZABALA



ERANSKINA



**Balio Erantsiaren Gaineko Zerga**

Azken autolikidazioa. Aitorpena (bakarrik erakunde-multzook eta HIEan inskribatutako subjektu pasiboak)

**390**

1. or.

Likidazio zk.

Ekitaldia	Epea <b>Urtekoa</b>	Konkurtsosa dagoenean epealdia zatikatzea 01	Autolikidazio osagarria
		(e)tik	(e)ra 02
Kutxa-irizpidearen araubide berezia duen subjektu pasiboa 03		Kutxa-irizpidearen araubide berezia aplikatzen zaien eragiketen hartzailea 04	
Hainbanaketa berezia aplikatzeko aukera 05	Hainbanaketa berezia aplikatzeko aukera ezeztatzea 06	BEZFAren 163.Sexies. Bost artikuluan araututako araudi bereziaren modalitatea aplikatzen duten subjektu pasiboa 07	

IFZ	Abizenak eta izena edo sozietatearen izena	Taldearen zk.
E-maila	Telefonoa	
Jarduera nagusia	EJZ epigrafea / Kodea	

Aurkezlea

IFZ	Deiturak eta izena edo sozietatearen izena
-----	--

Likidazioa	Subjektu pasiboa	Araubidea		Zerga oinarria		Mota	Kuota
Sortutako BEZa	Araubide orokorra		49		%0	50	
			20		%4	21	
			51		%5	52	
			22		%10	23	
			24		%21	25	
	Taldea barruko eragiketak		53		%0	54	
			26		%4	27	
			55		%5	56	
			28		%10	29	
			30		%21	31	
	Baliokidetasun-errekargua		32		%0,5	33	
			57		%0,62	58	
			34		%1,4	35	
			36		%5,2	37	
			38		%1,75	39	
		Batasunaren barruko ondasun- eta zerbitzu-eskuraketak	40			41	
		Subjektu pasiboa inbertitzearen ondorioz sortutako BEZa	42			43	
		Oinarrien eta kuoten aldaketa, orokorra	44			45	
	Oinarrien eta kuoten aldaketa, BEZFAren 80. artikuluko 3. eta 4. zenbakiak	46			47		
	Sortutako kuota, guztira $(21)+(52)+(23)+(25)+(27)+(56)+(29)+(31)+(33)+(58)+(35)+(37)+(39)+(41)+(43)+(45)+(47)$				48		
BEZ kengarria	Barruko eragiketetan BEZ kengarria, taldeen barruko eragiketetan kanpo				60		
	BEZ kengarria taldeen barruko eragiketetan				61		
	Inportazioetako BEZ kengarria				62		
	Batasunaren barruko ondasun- eta zerbitzu-eskuraketetako BEZ kengarria				63		
	Konpentsazioak nekazaritza, abeltzaintza eta arrantzaren araubide berezia				64		
	Inbertsio-ondasunen erregularizazioa				65		
	Kentzekoa, guztira $(60)+(61)+(62)+(63)+(64)+(65)$				66		
Lurraldearen araberako zerga-ordainketa (Administra. batzuetan ordaintzen duten subjektu pasiboak bakarrik)		HIE edo Erakunde-multzook, markatu lauki hau			80		
Administrazioa.	Eragiketeta kopurua	Portzent.	Diferentzia $(48) - (66)$		95		
Lurral. komu	81	82 %	Kuoten erregularizazioa (BEZari buruzko FAKo 80.Bost.5 art.)		120		
Araba	83	84 %	Bizkaiari egotz daskiokeen kuota $(95) + (120) \times (88)$		96		
Gipuzkoa	85	86 %	Aurreko urteetako ekitaldietako kuota konpentsagar		97		
Bizkaia	87	88 %	Diferentzia $(96) - (97)$		98		
Nafarroa	89	90 %	Bizkaiako Foru Aldundian egin diren sarrerak		99		
Guztira	91	92 %	BFAk eginiko itzulketak		100		
	Emitza $(98) - (99) + (100)$				110		
Emitza	Jarduerarik gabe	Konpentsatzekoa	Itzultzekoa	Sartzekoa			
	111	112	113	114			
	Bete autolikidazio osagarria bada bakarrik: lehen sartutakoa				115		
	Bete autolikidazio osagarria bada bakarrik: lehen itzultitakoa				116		
	Zerga zorra guztira				117		



IFZ	Abizenak eta izena edo sozietatearen izena	2. or.
-----	--	--------

Kutxa-irizpidearen araubide berezia duten subjektu pasiboentzako eta araubide horren eraginpeko eragiketen hartzaileentzako baino ez

Kutxa-irizpidearen araubide berezia aplikatu ondoren, BEZari buruzko Foru Arauaren 75. artikuluan jasotako zerga sortzeko arau orokorraren arabera sortutako ondasun-emateen eta zerbitzuen prestazioen zenbatekoak	Zerga-oinarria	Kuota
	130	131
Kutxa-irizpidearen araubide berezia aplikatu ahal zaien edo araubide horren eraginpean dauden ondasunen eta zerbitzuen eskuraketaren zenbatekoak	Zerga-oinarria	Jasandako kuota
	132	133

Izakinak	Hasierakoak (urtarrilak 1)		140		
	Amaierakoak (abenduak 31)		141		
Ondasun arrunten erosketak	Zerga oinarria	Mota	Jasandako kuota	Kuota kengarria	
	142	%4	143	144	
	134	%5	135	136	
	145	%10	146	147	
	148	%21	149	150	
	151		152	153	
	154		155	156	
	Guztira (142+134+145+148+151+154)			Guztira (143+135+146+149+152+155)	Guztira (144+136+147+150+153+156)
	157		158	159	
	Gastuak	160	%4	161	162
196		%5	197	198	
163		%10	164	165	
166		%21	167	168	
169			170	171	
Guztira (160+196+163+166+169)			Guztira (161+197+164+167+170)	Guztira (162+198+165+168+171)	
Inbertsio-ondasunak	172		173	174	
	175	%4	176	177	
	227	%5	228	229	
	178	%10	179	180	
	181	%21	182	183	
	184		185	186	
Guztira (175+227+178+181+184)			Guztira (176+228+179+182+185)	Guztira (177+229+180+183+186)	
187		188	189		
Zerga-oinarria guztira (157+172+187)			Jasandako kuota guztira (158+173+188)	Kuota kengarria guztira (159+174+189)	
190		191	192		

Laina	Laina aplikatu bada, hurrengo laukiren batean X jarri beharko da: Aplikatutako hainbanaketaren ehunekoa	Lain orokorra	193	Lain berezia	194
	195				

Eragiketen bolumena	Araubide orokorreko eragiketak	200
	Kutxa-irizpidearen araubide berezia aplikatu ondoren, BEZari buruzko Foru Arauaren 75. artikuluan jasotako zerga sortzeko erregela orokorraren arabera sortutako eragiketak	201
	Batasunaren barruko ondasun- eta zerbitzu-emateak	202
	Esportazioak eta salbuetsitako beste eragiketa batzuk, kenkarirako eskubidea ematen dutenak	203
	Eragiketa salbuetsiak, kenkarirako eskubidea ematen ez dutenak	204
	Kokapen-erregelen menpe ez dauden eragiketak (207 eta 209 laukietakoak izan ezik)	205
	Subjektu pasiboaren inbertsioa duten eragiketa lotuak	206
	Kokapen-erregelen menpe ez dauden eragiketak, leihatila bakarraren araubide bereziei heldu dietenak	207
	Leihatila bakarraren araubide berezien mende dauden eragiketa lotuak	208
	Batasuneko beste estatu kide batzuetan instalatu edo muntatu beharreko ondasunen emateak	209
	Araubide erraztuko eragiketak	210
	Nekazaritza, abeltzaintza edo arrantzaren araubide berezian eginiko eragiketak	211
	Baliokidetasun-errekarguaren araubide berezian dauden subjektu pasiboek eginiko eragiketak	212
	Erabilitako ondasunen, arte objektuen, antzinako objektuen eta bilduma objektuen araubide berezian eginiko eragiketak	213
	Bidaia-agentzien araubide berezian eginiko eragiketak	214
	Talde barruko eragiketak, BEZFAren 78. eta 79. artikuluetan xedatutakoaren arabera baloratuak	215
	Ondasun higiezinaren entregak, finantza-eragiketak eta inbertsio-urreakin lotutako ezohiko eragiketak	216
	Inbertsio-ondasunen emateak	217
	Eragiketen bolumena, guztira (BEZFAren 121 art.) (200+201+202+203+204+205+206+207+208+209+210+211+212+213+214+215-216-217)	218
	Eragil. espeziif.	Loturarik gabeko bestelako eragiketak kentzeko eskubidearekin
Loturarik gabeko bestelako eragiketak kentzeko eskubiderik gabe		221
Ustiapenarekiko diru-laguntzak		222
Ekitaldian jasotako kapitalaren diru-laguntzak		223



	IFZ	Abizenak eta izena edo sozietatearen izena			3. or.
	<b>Lainak</b>				
1	Garatutako jarduera				
	EJSN	Eragiketen zenbateko guztia	Kentzeko eskubidea duten eragiketen zenbateko guztia	Mota	Lain portzentajea
	250	251	252	253	254 %
2	Garatutako jarduera				
	EJSN	Eragiketen zenbateko guztia	Kentzeko eskubidea duten eragiketen zenbateko guztia	Mota	Lain portzentajea
	250	251	252	253	254 %
3	Garatutako jarduera				
	EJSN	Eragiketen zenbateko guztia	Kentzeko eskubidea duten eragiketen zenbateko guztia	Mota	Lain portzentajea
	250	251	252	253	254 %
4	Garatutako jarduera				
	EJSN	Eragiketen zenbateko guztia	Kentzeko eskubidea duten eragiketen zenbateko guztia	Mota	Lain portzentajea
	250	251	252	253	254 %
5	Garatutako jarduera				
	EJSN	Eragiketen zenbateko guztia	Kentzeko eskubidea duten eragiketen zenbateko guztia	Mota	Lain portzentajea
	250	251	252	253	254 %
6	Garatutako jarduera				
	EJSN	Eragiketen zenbateko guztia	Kentzeko eskubidea duten eragiketen zenbateko guztia	Mota	Lain portzentajea
	250	251	252	253	254 %
7	Garatutako jarduera				
	EJSN	Eragiketen zenbateko guztia	Kentzeko eskubidea duten eragiketen zenbateko guztia	Mota	Lain portzentajea
	250	251	252	253	254 %
<b>Faktura liburuak</b>					
Luzatutako fakturak			Jasotako fakturak		
Saila	Hasiera zk.	Amaiera zk.	Saila	Hasiera zk.	Amaiera zk.
<b>Banku helbideraketa</b>					
IBAN kodea					
Data eta bidalketa zk.					
Foru Ogasunaren zigilu elektronikoa					
Aurkezpen telematikoa			2023		